

ORDENANTZA, UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA

1. artikulua. Ordenantza honen tasa martxoaren 2ko 4/1999 Foru Legeak aldatzen duen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 100. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da.
2. art. Igerilekuaren eta gainerako kirol instalazioen erabiltzaileak daude behartuak ordainarazpen hauek ordaintzera.
3. art. Kirol instalazioen eremura sartuz hasten den erabilerarekin batean sortzen da prezio publikoa ordaindu beharra.
4. art. Ordainarazpen honen oinarritzat hartuko dira pertsona naturalak edo zerbitzuen onuradun diren pertsona juridikoentzat banan-banan gordetako plazak.
5. art. Jasoko diren eskubideak ordenantza honetako eranskinean ezartzen diren tarifak izango dira.
6. art. Udalaren kirol instalazioetan sartzeko Udalaren baimena edo sarrera eskuratzen denean sortzen da ordenantza honetan arautzen den tasa ordaindu beharra.
7. art. Instalazioen erabiltzaileek aldioro egin beharko diete men udal kiroldegiaren esparruan portaeraz eta erabileraz ikusgai paratzen diren araei.
8. art. Instalazioen ardura duten langileek sarrerak eskatu eta ez aurkezteak udal kiroldegiaren esparrutik kanporatzea izan dezake zehapen.
9. art. Iruzurtzat hartuko da udal kiroldegian behar den sarrerarik edo baimenik gabe sartzea.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ordenantza honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.

T A R I F A K

Kirol instalazioak

-Aerobic-a: hilabeteko kuota: 2.288 pezeta -13,75 euro (2 egun astean eta ordu bat egunean).

Hiruhilabeteko kuota: 6.864 pezeta - 41,25 euro (2 egun astean eta ordu bat egunean).

Ikastaro osoko kuota: 19.240 pezeta -115,63 euro (urria-ekaina).

-Mantenimenduko soinketa:

Hilabeteko kuota: 1.560 pezeta - 9,38 euro.

1.040 pezeta - 6,25 euro 3. adinekoendako.

Hiruhilabeteko kuota: 4.680 pezeta - 28,13 euro.

Ikastaro osoko kuota: 12.688 pezeta - 76,26 euro.

-Karatea:

Ikastaro osoa (helduak): 18.720 pezeta - 112,51 euro (urria-ekaina).

Ikastaro osoa (haurrak): 16.640 pezeta -100,01 euro (urria-ekaina).

Orduak: 2 egun astean eta ordu bat egunean.

-Bazkide kuota: sauna, frontoi ttikia eta gimnasioa.

Hilabetekoa: 5.200 pezeta - 31,25 euro.

Hiruhilabetekoa: 14.040 pezeta - 84,38 euro.

Ikastaro osokoa: 37.440 pezeta - 225,02 euro(urria- ekaina).

Orduak: 9:00etatik 13:00etara/15:00etatik 22:00etara, astelehenetik ortziralera.

Larunbatetan 9:00etatik 13:00etara.

Kiroldegia kirol ez bertzeko erabilpenetarako: 104.000 pezeta - 625,05 euro.

-Pista osoa erabiltzea argi artifizialarekin: 2.808 pezeta - 16,88 euro/ordua.

-Pista osoa erabiltzea argi naturalarekin: 1.976 pezeta - 11,88 euro/ordua.

-Pistaren herena erabiltzea argi artifizialarekin: 988 pezeta - 5,94 euro/ordua.

Pistaren herena erabiltzea argi naturalarekin: 676 pezeta 4,06 euro/ordua.

Saunara eta muskulazio aretora sartzea: egunean 1.040 pezeta - 6,25 euro.

-Saunarako hilabeteko abonua: 5.200 pezeta - 31,25 euro, eta gehienez 20 ordu.

-Muskulazio aretoko hilabeteko abonua: 5.200 pezeta - 31,25 euro, eta gehienez ere 20 ordu.

-Hilabeteko abonua karaterako: 2.080 pezeta - 12,50 euro.

Frontoia

-Argi artifizial osoa: 1.400 pezeta - 8,41 euro/ordua

-Argi artifizial erdia: 700 pezeta - 4,21 euro/ordua

Igerilekuak

-Denboraldikoa: 16 urtez goitikoak: 4.125 pezeta - 24,79 euro.

-10-16 urte bitartekoak: 1.650 pezeta - 9,92 euro.

-7-10 urte bitartekoak: 700 pezeta - 4,21 euro.

-Hilabetekoa: 16 urtez goitikoak: 3.300 pezeta - 19,83 euro.

-10-16 urte bitartekoak: 1.200 pezeta - 7,21 euro.

-7-10 urte bitartekoak: 650 pezeta - 3,91 euro.

-Egunekoa: 16 urtez goitikoak: 475 pezeta - 2,85 euro.

-10-16 urte bitartekoak: 275 pezeta - 1,65 euro.

-7-10 urte bitartekoak: 150 pezeta - 0,90 euro.

ORDENANTZA, UR HORNIDURAREN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

Oinarria

1. artikulua. Ordenantza honen tasa martxoaren 2ko 4/1999 Foru Legeak aldatzen duen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 100. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da.

Zergagaia

2. art. Edateko uraren hornidura zerbitzua erabilgarri izan nahiz benetan erabiltzea da zergagaia.

Salbuespenak

3. art. Ez da salbuespenik eginen ordainarazpen honi dagokionez.

Subjektu pasiboak

4. art. Pertsona fisiko edo juridikoak, baita, nortasun juridikorik ez izan arren, unitate ekonomikoa edo ondare banatua eratzen duten entitateak ere, izanen dira, zergadun diren aldetik, ordainarazpen honen sujetu pasiboak, baldin eta edateko uraren etxez etxeko hornidura zerbitzua eta gisako bertze zerbitzuak eskatzen badituzte edo haietaz baliatzen badira.

Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira higiezin jabeak, eta hauek, behar balitz, onuradunei erasaten ahalko dizkiete kuotak.

Tarifak

5. art. Zerbitzuaren tarifak ordenantza honetako eranskinean ezartzen diren kontzeptu eta kopuruengatik ordainaraziko dira.

Likidatu beharreko kuota

6. art. Likidatu beharreko kuota aurreko artikuluko tarifak aplikatzearen emaitza izanen da, aipatzen diren kontzeptuen arabera.

Sortzapena

7. art. Prezio publikoa eta ordaindu beharra kontzeptu hauengatik sortzen da:

- a) Zerbitzua erabilgarri izateagatik eta horren mantenimenduagatik, hornidura-sarera lotzen den unean.
- b) Kontsumoagatik, hasten den une beretik.
- c) Ur-hartunea paratzeagatik, ur hartunearen irekidura egin edo lizentzia edo baimena ematen den unean.

Kudeaketa arauak

8. art. Kontagailua erostearen gastuak eta hura paratzeko behar diren materialak eta eskulana sarera lotzea edo hornidura eskatzen duenari kobratuko zaizkio.

9. art. Prebentzio moduan, etxe edo instalazio barrenean ur-galera dakarten aberiak dituen hartunearen titularrari ur-hornidura mozten ahalko zaio.

10. art. Erabiltzaileak ezin du inondik ere bertze inor uraz hornitu, ez eta eskubidea ez duenari hartzen utzi ere. Gainera, galarazi beharko du bere axolagabekeriak gertatzen ahal den iruzurra. Halakorik bada, erabiltzailea izanen da erantzule bakarra.

11. art. Erabiltzaileak behartuak daude ura banatzeko sare nagusiko aberia baten ondorioz gertatutakoak toki entitateari lehenbailehen jakinaraztera.

12. art. Erabiltzaileari dagokio kontagailua eta paso- giltza dauden tokia behar den bezala egon dadin zaintzea eta toki entitateak ematen dituen jarraibideak betetzea.

13. art. Ordenantza honetan aipatzen diren kontzeptuetako bat ordaindu beharra duten zergadunak behartuak daude kontagailua dagoen tokira sartzen uztera irakurketa egiten duen langile kreditatuari edo toki entitateko edozein langileri, baldin eta zerbitzuko beharregatik edo bertze zerbaitengatik zergadunaren etxera edo lokalera sartu beharrean badaude.

Dirubilketa

14. art. 1. 5. artikuluan aurreikusitako ordainarazpenak hiruhilekoan behin ordainduko dira.

Arau-hauste eta zehapenak

15. art. Honako hauek iruzurtzat hartzen dira:

- a) Toki entitateko langile behar bezala kreditatuek egiten dituzten bisitak oztopatzea.
- b) Kontagailuen irakurketa edo ordenantza honetan araututako zerbitzuekin ikustekoa duten frogapenak galaraztea.

- c) Toki entitateak ezarritako zigilu, zerraila edo aparatuak aldatzea.
- d) Toki entitateak neurgailuak edo kontsumo-aparatuak aldatzeari buruz emandako jarraibideak ez betetzea.
- e) Kontagailuaren irakurketa espreski aldatzeko asmoz baimenik gabeko mekanismoak erabiltzea.

16. art. Arau-hauste eta zehapenen gainerako alderdiei dagokienez Ordenantza fiskal orokorrean, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean eta horrekin bat heldu diren arauetan xedatutakoari lotuko zaio.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, toki entitate honek onetsitako Ordenantza fiskal orokorra eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aplikatuko dira.

Bigarrena.-Ordenantza honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.

E R A N S K I N A

Tarifak

- a) Hornidura zerbitzua erabilgarri edukitzeagatik eta horren mantenimenduagatik.

Etxeko erabilpena: 632 pezeta - 3,80 euro (+ BEZa).

Industriako erabilpena: 1.271 pezeta - 7,64 euro (+ BEZa).

- b) Horniduragatik, kontsumitutako metro kubiko bakoitzeko:

Etxeko erabilpena: 42 pezeta - 0,25 euro (+BEZa).

Industrian edo ureztapeneko erabilpena: 51 pezeta - 0,31 euro (+BEZa).

EREMU PUBLIKOKO ETA HERRILURRETAKO ZORU, HEGALKIN ETA ZORUPEKO PROBETXAMENDU BEREZIEN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 122. artikuluan, Nafarroako Entitateen Ondasunei buruz urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Erregelamenduko 93. eta ondoko artikuluetan eta martxoaren 2ko 4/1999 Foru Legeak aldatzen duen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legeko 28. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza hau.

2. art. Eremu publikoko eta herrilurretako zoruan, hegalkinean eta zorupean ondoko probetxamendu edo erabilera pribatiboetarik edozein egitea da zergaia:

- 1. Erabilera publikoko lurren zorupea okupatzea.

2. Erabilera publikoko lurrak salgai, material edo gisako muntaduren bidez okupatzea.
3. Ereku publikoaren gainean edo haren hegalduran kokatuta dauden burni-barra, aldarnio eta gisakoak, kableak, horma-besoak, lotura, banaketa edo erregistrarako kaxak, baskulak, salmenta automatikorako tresnak eta gisakoak.
4. Irabazteko xedearekin mahaiak eta kadirak paratuz erabilera publikoko lurrak okupatzea.
5. Ereku publikoan kioskoak paratzea.
6. Erabilera publikoko lurretan kokatutako postu, barraka, saltoki, ikuskizun eta jolaskizunak, kalez kaleko industriak eta zinema filmaketa.

3. art. Ondoko hauek daude beharturik ordenantza honetan ezarritako prezio publikoak ordaintzera:

a) Udal lizentzia edo kontzesioen titularrak eta probetxamenduaren mozkinak jasotzen dituzten pertsona natural edo juridikoak.

b) Lizentziarik edo kontzesiorik gabe, ordenantza honen xede diren probetxamenduak egiten dituztenak.

c) Probetxamenduz gehiago baliatu gabe ere toki entitatean haren baja aurkezten ez dutenak.

d) Ereku publikoan ezartzen diren edukiontzien kasuan, lizentziaren titularrak edo probetxamenduz baliatzen direnak. Zergadunaren ordezkotzat edukiontzien jabeak eta etxegileak hartuko dira.

4. art. Ordenantza honetako prezio publikoaren zenbatekoa finkatzeko, probetxamenduaren iraupena eta ordenantza honetako xede diren probetxamendu bereziek okupatutako eremu publikoaren azalera hartuko da kontutan, honen eraskinean xedatzen denari jarraikiz.

5. art. Toki mailako zerbitzu publikoak ematen dituzten enpresak salbuetsirik egonen dira prezio publikoen ordainarazpenetik.

6. art. 1. Erabilera pribatiboak edo probetxamendu bereziak berekin badakar toki entitatearen jabari publikoaren suntsiketa edo narriadura, onuraduna aipatu horiek berreraiki edo konpontzeko gastuen kostua ordaintzera beharturik dago, bai eta aurretik zenbateko hori gordailutako uztera ere, deusetan ukatu gabe prezio publikoaren ordainketa.

2. Kalteak konponezinak badira, onuradunak desegindako ondasunek zenbait balio duten edo kaltetutakoen baliogalera norainokoa, horrenbertze emanen dio ordainetan toki entitateari.

Toki entitateak ez ditu inolaz ere barkatuko artikulu honek aipatzen dituen kalteordainak eta diru itzulerak.

7. art. Prezio publikoa ordaindu beharra probetxamendua onartzen denean sortzen da, edo probetxamendua hasten denetik, baimenik gabe hasi bada.

8. art. Udalak behar den lizentziarik edo kontzesiorik eman gabe probetxamendua hasten bada, behar den prezio publikoa pagatzeak ez ditu egindako probetxamenduak legeztatuko eta, beraz, kalteordainik eman gabe instalazioak kentzeko agindu daiteke.

9. art. 1. Ordenantza honetan araututako prezio publikoei lotutako probetxamenduek behar den errolda edo zentsua izanen dute ohikoak eta etengabeak badira.

2. Erabilera publikoko lurrak, irabazi asmoz, mahai eta kadirekin okupatzeari dagokionez, Udalak baimena bere osotasunean balio gabe utzi edo aldi baterako ken dezake arrazoi bidezko, obra, konponketa, eta abarrik badago, eta kobratutako prezio publikoaren zati proportzionala itzultzeraz baizik ez da behartua egonen.

3. Balkoi eta terrazak kristalez ixteari dagokion prezio publikoaren sortzapena lizentzia ematen den unean izanen da.

10. art. 1. Iruzurtzat hartuko da behar den lizentziarik gabe probetxamendua edo erabilera hastea.

2. Bertzelako arau-hausteei dagokienean eta zehapenekin ikusteko duten afera orotan, Ordenantza fiskal orokorrak xedatutakoari jarraituko zaio. Toki entitateak, agindu bidez, lizentzia edo baimenik gabeko muntadurak eremu publikotik ken ditzake udal biltegi-tara eramateko, eta muntadura hori desmuntatu, garraiatu, biltegi-tara eraman eta egin behar den bertze edozergatik sortutako tasak eta gastuak jabearen kargu geldituko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan aurreikusi ez den orotan, Ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Bigarrena.-Ordenantza honek indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean.

E R A N S K I N A

I. epigrafea.-Probetxamendu bereziak zoru gainean.

I.1. Mahaiak, kadirak, mahaitxoak, metro karratu edo zatiki bakoitzeko: 1.876 pezeta - 11,27 euro.

I.2. Merkatu tikiak (herriko bestetan), metro lineal edo zatiki bakoitzeko: 2.123 pezeta - 12,76 euro.

Zenbateko hauek lizitazioaren hasierako prezioztat hartuko dira, esleipena enkante bidez egiten bada.

I.3. Lur publikoak etxe artean okupatzea: 385 pezeta - 2,31 euro.

II. epigrafea.-Probetxamendu bereziak hegalkinean

II.1. Ibardingo edo bertzetako terrazak: 1.250 pezeta - 7,51 euro/m².

III. epigrafea.-Probetxamendu bereziak zorupean.

Muntatutako biltontzi bakoitzeko: urtean 596 pezeta - 3,58 euro.

ORDENANTZA, UDAL HILTEGIA ERABILTZEKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA

1. artikulua. Martxoaren 2ko 4/1999 Foru Legeak aldatzen duen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 100. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza honen prezio publikoa.

2. art. Pertsona fisiko edo juridikoak, baita, nortasun juridikorik ez izan arren, unitate ekonomikoa edo ondare banatua eratzen duten entitateak ere, egonen dira ordainarazpen hauek ordaintzera behartuak, baldin eta udal hiltegiako zerbitzua eskatzen badute edo hartaz baliatzen badira.

3. art. Udal hiltegiako zerbitzuak erabiltzeagatik sortzen da zerga ordaindu beharra.

4. art. Zerbitzua egiteko tarifak kontzeptu hauengatik igorpenduko dira, ordenantza honetako eranskinean ezartzen diren kopuruen truke:

-Etxean hiltzea

-Bildotsak hiltzea

-Behi aziendak kanalean

-Zerri aziendak kanalean

5. art. Udal hiltegia erabiltzen den unean sortzen da ordenantza honetan arautzen den prezio publikoa ordaintzeko betebeharra.

6. art. Instalazioen erabiltzaileek aldioro egin beharko diete men udal hiltegiaren esparruetan portaeraz eta erabileraz ikusgai paratzen diren arauak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Hiltegiako zerbitzu publikoaren gaur egungo udal ordenantza indarririk gabe geldituko da ordenantza honi kontra egiten dion heinean.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ordenantza honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.

E R A N S K I N A

Tarifak

Etxean hiltzea: 594 pezeta - 3,57 euro buruko (+ BEZa).

Bildotsak hiltzea: 294 pezeta - 1,77 euro buruko (+ BEZa).

Behi aziendak kanalean: 17 pezeta - 0,10 euro (+ BEZa).

Zerri aziendak kanalean: 11 pezeta - 0.07 euro (+ BEZa).